

Irabazi Askatasuna

Euskaldunon Egunkaria, 2001-05-08: 5.

Askatasuna, garesti irabazi behar izaten den salkin eskas horietako bat da. Hauteskundeetan, esate baterako.

Honetan gaude, merkatuan, gure herrian une honetan, salerosketa bizian, eta neuk jaso dudan esaldi hau telefono kabina bateko beirinan kolatuta dago. Entzungo dira hemen ere berritsuketa franko, eta egia gutxi. Eta ez dakit zer irabaziko duen irabazten duenak, baina nire esperientziak dituen laurogei urtean ez dut ikasi honelako kabina batean Askatasun usainik duen ezer! Ez didazu esango orain Askatasuna kartzelero batek ekarriko digunik? Askatasunaren zain aspaldi daudenak, zain daude oraindik kondena bete eta gero ere, baina oraindik urrunago eramán dituzte! Eta bisitak gero eta urrunago!

Erruki handirik ez bada behar, ama bat sentitzeko gertu sentitzeko! Berea sentituko du, gutxienez; baina besterenik ez. Fragak ere maite omen du euskara. Zanpatu! Zeren, esaten badizute gezurra botoa eskatzerakoan, zer egingo dizute botoa eman eta gero? Ibilía da Fraga gezur handiagotán, Mayor ibilía duzun bezala Askatasunetan, besteen askatasunetan. Izan ditu okasioak bere errukia eta justizia, biak, estreinatzeko. Orain berandu da.